

Atza

«Uruguaien oso ondo hartu gaituzte»

Ana Bermejo hamasei urteko altzatarra bigarren gelditu da 22 urtetik azpikoan Munduko Bosgarren Trinkete Txapelketan, pilota goman, Uruguaien. Berarekin solasaldia izan dugu.

Sara Soria 943-357037

Noiz eta nola hasi zinen trinketean?

Txikitatik eskolan saskibaloia egin izan dut, baina eskola amaitu eta klub batean sartzeko gogorik ez nuen, utzi egin nuen. Duela bi urte, ordea, pilotan jokatzeko hasi nintzen Alzako frontoian eta bertan trinketera hurbiltzera bultzatu ninduten. Urtebete besterik ez daramat trinketean.

«Trinketean urtebete besterik ez daramat»

Mundukoa baino lehen, beste inongo txapelketatan izan al zara?

Trinketean bakar batean, bi partidu serio baino ez. Izan ere, oso jende gutxi dago 22 urtetik azpikoetan, gehienak 30 urte ingurukoak izaten dira eta txapelketa nagusian jokatzeko dute. Frontoi normalean aritzen nintzenez, berriz, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan parte hartu nuen, baita Udaberriko Txapelketan ere.

Nolakoa izan da Uruguai-ko txapelketako esperientzia?

Primerakoa, jendea oso jatorra zen eta oso ondo hartu gaituzte. Askotan Hegoameri-

«Datorren urtean Euskadiko Txapelketara joango naiz»

ka pobrea dela uste dugu, baina Colonia del Sacramento ez da horrelakoa. Gainera, janaria oso gozoa da. Itzultzeko modukoa, benetan.

Harremanik izan al duzu beste herrialdeetako partaideekin?

Bai, oso ondo moldatu gara denok. Frantziako selekzioan gehienak Ipar Euskal Herrikoak ziren eta euskaraz egiten zuten. Gainontzekoek gazteleraz zekiten. Beraz, guztiakin komunikatu ahal izan dugu.

Munduko Txapelketan bigarren gelditu ostean, etorkizunari begira zer duzu eskuartean?

Orain Gipuzkoako Txapelketan ari gara eta aurreneko lauen artean gelditu garenez, datorren urtean Euskadiko Txapelketara joango gara. Horrez gain, hemendik lau urtetara 22 urtetik azpikoan txapelketa Frantzian egingo da ziurrenik, eta parte hartzea espero dut. Izan ere, 20 urte izango ditut orduan. Hortik aurrera, ordea, zaila izango da postu on batean gelditzea; txapelketa nagusian partaide gehiago eta maila altua dago.

Zer esango zenieke gazteei trinketean joka dezaten?

Kirol guztiak dira politikak, baina saskibaloian edo futbolan jende askok egiten du. Zerbait ezberdina egitera bultzatuko nituzke, trinketea ez bada, pala, adibidez. Horrez gain, gutxi garenez, aukera gehiago ditugu txapelketetara joateko eta bidaiatzeko.



Ana Bermejo auzotar gaztea bigarren gelditu da Uruguai-ko txapelketan. Ezkerretik hasita bigarren emakumea dugu Bermejo.

euskararen
donostia
patronatu

LITERATUR SOLASALDIA

«Urregilearen orduak»
Pako Aristi
Dinamizatzailea: Felipe Juaristi
Abenduaren 20an,
19.30etan
Liburutegi Nagusian

Musika

Ruper Ordorika
Abenduaren 20an,
21.00etan
Egiako Kultur Etxean

BERTSOLARITZA

Santo Tomas eguna
Aitor Sarriegi eta Jose Mundeate
Abenduaren 21ean,
13.00etan
Abuztuak 31 kalean

HAUR ANTZERKIA

Kiki, Koko, Moko eta Flax
Abenduaren 28an,
18.00etan
Antiguako frontoian

«Eguzkiaren irrifarra»
Kuasi Modu taldea
Abenduaren 22an,
17.00etan
Larrotxene Kultur Etxean

«Makineroa»
Detraka taldea
Abenduaren 28an,
17.00etan
Egiako Kultur Etxean
(kalean)



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián